

KOSTUAK

Enpresa bat aurrera eramateak dakartzan kostu guztien definizioa da. Prozesu guztiek gastu jakin batzuk sortzen dituzte, eta gure enpresak gai izan beharko du gastu horiei aurre egiteko.

Hauexek izan daitezke kostuen egituren ezaugarriak: kostu finkoak, kostu aldakorak, eskalako ekonomiak eta hedadura-ekonomiak.

Gure enpresaren aterkiak ekoizteko egokiena eskala ekonomia da. Eskala ekonomia produzitutako unitateen kantitatea handitzean eta kostuen murrizketa lortzen denean ematen da. Hau da, gure enpresak 2000 aterki produzitzen baditu, kostua txikiagoa izango da 300 aterki produzitzean baino.

Baina kostu finkoak ere edukiko ditugu, gure enpresak lan egingo duen lokalaren alokairua ordaintzeko eta langileen soldatak ordaintzeko.

Kostuen egiturari dagokionean, bi egitura mota daude: balioan oinarritutakoa eta kostuan oinarritutakoa. Balioan oinarritutako enpresa batek kalitatea edo ospeagatik iritsi nahi du bezeroarengana. Kostuan oinarritutakoak, berriz, lehiakideak baino merkeago izan nahi du.

Gure produktua berritzailea denez, eta hortaz, beste antzeko produktuekin lehiatu behar ez dugunez, gure kostua guk nahi erara finka dezakegu. Hori bai, erosleei eskuragarritasuna bermatuz. Gure produktuaren kostuarekin dugun arazoa zero da: hau garestiegia bada, jendeak nahiago izango duela aterki arrunt bat eskuratzea.

Gainera, arrazoi berdinengatik, balioan oinarritutako negozio ereduagatik egingo dugu apustu.

Eneritz Aduriz
Kimetz Toledo
Iker Mitxelena
Zihara Etxeberria